**ELORRIOKO UDALAREN 2024 URTERAKO ELORRIOKO HIGIKOR ETA HIGIEZINEN KULTUR ONDAREA BERRITZEKO ERAIKUNTZETAN ESKU-HARTZEAK EGITEKO DIRULAGUNTZA**

**Elorrioko Udalak Dirulaguntzen Oinarri Erregulatzaileak onartu zituen 2008ko abenduaren 18an batutako Udalbatzaren Ohiko saioan (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2009ko martxoaren 9an argitara eman zirenak). Honako aldaketak izan zituen: lehenengoa, Udalbatzak 2010eko otsailaren 11n onartu zuena (eta BAOn maiatzaren 10ean argitara emana) eta bigarrena, Udalbatzak 2011ko abenduaren 28an onartutakoa (BAOn 2012ko otsailaren 10ean argitara eman zena).**

**Horiei eta Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoari jarraiki, dirulaguntzak eskatzeko deialdia egiten dut, ondoko oinarrien arabera.**

**1. HELBURUAK ETA DOTAZIOAK**

**<u>Deialdiaren helburua</u>: Elorrioko Udalak 2024an Elorrioko higikor eta higiezinen kultur ondarearen esku-hartzeak diruz laguntzeko prozedura arautzea.**

**Higikorren kasuan honakoetarako eskatu daiteke dirulaguntza: eskulturak (hainbat materialekin egindakoak) edo margolanak (hainbat euskarritan egindakoak).**

**Honako esku-hartzeak diruz lagundu daitezke:**

| | **Ondasun higiezinak** | **Ondasun higikorrak** |
|---|---|---|
| **Birgainkuntza** | **BAI** | **BAI** |
| **Kontserbazioa** | **EZ** | **BAI** |
| **Mantenua** | **EZ** | **EZ** |
| **Instalazioa** | **EZ** | **EZ** |

**Zaharberritze edo birgaitze-obratzat jotzen da eraikuntza bat konpontzeko egiten dena, haren estetika eta balio historikoari eutsiz (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena).**

**<u>Dirulaguntzaren helburua</u>: 2024an esku-hartze horiek diruz laguntzea, higikor eta higiezinen zaharberritzeak sustatzeko asmoz. Horretarako 10.000 euroko diru-izendapena dago 3360.781.01 (Errota, baselizak eta**

SUBVENCIÓN DEL AYUNTAMIENTO DE ELORRIO PARA ACOMETER INTERVENCIONES CONSTRUCTIVAS DE REHABILITACIÓN DEL PATRIMONIO CULTURAL MUEBLE E INMUEBLE DE ELORRIO EN 2024

El Ayuntamiento de Elorrio aprobó las Bases Reguladoras de las Subvenciones en el Pleno Ordinario celebrado el 18 de diciembre de 2008 (publicadas en el Boletín Oficial de Bizkaia de 9 de marzo de 2009). Tuvo dos modificaciones. La primera, aprobada por el Pleno el 11 de febrero de 2010 (y publicada en el BOB el 10 de mayo) y la segunda, aprobada por el Pleno el 28 de diciembre de 2011 (publicada en el BOB el 10 de febrero de 2012).

A tal efecto y de conformidad también con el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento, se procede a la convocatoria de las mismas, conforme a las siguientes bases.

1. OBJETO Y DOTACIÓN

<u>Objeto de la convocatoria</u>: regir el procedimiento de subvención de intervenciones del patrimonio cultural mueble e inmueble de Elorrio que subvencionará el Ayuntamiento de Elorrio en 2024.

Los bienes muebles objeto de subvención serán escultura en distintos materiales o pintura en diversos soportes.

Los tipos de intervención subvencionables son:

| | Bienes inmuebles | Bienes muebles |
|---|---|---|
| Rehabilitación | SÍ | SÍ |
| Conservación | NO | SÍ |
| Mantenimiento | NO | NO |
| Instalación | NO | NO |

Se entiende por obra de restauración o rehabilitación aquella que tiene por objeto reparar una construcción conservando su estética y respetando su valor histórico (Ley 9/2017 de 8 de noviembre de Contratos del sector público).

<u>Objeto de las subvenciones</u>: Subvencionar dichas intervenciones durante el 2024, para incentivar las restauraciones de bienes muebles e inmuebles. Existe, para ello, una dotación de 10.000 euros en la partida 3360.781.01 (Errota, baselizak eta monumentuak eraberritzea – Rehabilitación de

**monumentuak eraberritzea – Rehabilitación de molinos, ermitas y monumentos) partidan. Aurrekontu-atal hauetan, dirulaguntzetarako behar izanez gero, diru-hornidura gehigarria egin daiteke, hartarako deialdi berririk egitea beharrezkoa izan barik.**

molinos, ermitas y monumentos).
Se podrán dotar estas partidas con una cuantía adicional aplicable a la concesión de las subvenciones, sin que ello requiera una nueva convocatoria.

**2. ONURADUNAK**

**Dirulaguntza hau eskatu ahal dute euren jabekogo Elorrioko ondasun higikor edo higiezinetan zaharberritze lanak egiten dituztenek.**

**Herriko ondarea ahalik eta modu eraginkorrenean lagundu eta zaindu ahal izateko eta eragile eta egitasmo desberdinak planifikatu, kontrolatu eta koordinatu ahal izateko, aldez aurretik Udalaren kultura departamentuan aurkeztuak izan diren egitasmoak diruz lagunduko dira.**

**Zaharberritu den higikor edo higiezinaren jabeak izan daitezke dirulaguntza hauen onuradunak, 38/2003 Legeak, Dirulaguntzen Orokorra, 13. artikuluan edo Dirulaguntzen Udal Ordenantza Orokorrak 10. artikuluan jasotzen dituen egoeretako batean ez badaude.**

**Onuradun izateko debekua**

**- Administrazio-bidean, lan-bidean edo zigor-bidean berdintasun-eskubidea urratzeagatik eta sexuan oinarritutako bereizkeriari egiteagatik zehazpen irmoa jaso duten pertsona edo entitateak.**

**- Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoak, xedatzen dituzten betebeharrak betetzen ez dituztenak.**

**- Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen penal edo administratiboa izatea, edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean egotea, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak, Emakumeen eta**

2. BENEFICIARIAS

Pueden solicitar esta subvención las personas o entidades propietarias que acometan trabajos de restauración de sus bienes patrimoniales muebles o inmuebles de Elorrio.

Con el fin de poder planificar, controlar  y coordinar los diferentes promotores y agentes y de poder cuidar e impulsar el patrimonio del pueblo de la manera más eficaz posible, se subvencionarán los proyectos presentados con antelación al departamento de cultura del Ayuntamiento.

Podrán beneficiarse de estas subvenciones las personas o entidades propietarias de los bienes intervenidos que no estén incursas en ninguna de las circunstancias impeditivas recogidas en el artículo 13 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones, así como el artículo 10 de la Ordenanza General municipal de Subvenciones.

**Prohibición para ser beneficiaria**

- Las personas o entidades sancionadas con carácter firme por vulnerar el derecho a la igualdad en vía administrativa, laboral o penal y por incurrir en discriminación por razón de sexo.

- Las personas o entidades que incumplan las obligaciones establecidas por el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, así como la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.

- Quien está sancionada penal o administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, o incursa en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello según El Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las

**Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenaren edo martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexuaren ziozko bereizkerian erortzeagatik gertatutakoak barne.**

**- Kideak aukeratzeko prozesuan edo lan-jardueran sexuan oinarrituta diskriminatzen duten elkarteak edo erakundeak.**

**3. EPEAK**

**Eskariak aurkezteko epea urriaren 30era arte da.**
**Epea deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasiko da.**

**4. EMATEKO PROZEDURA ETA IRIZPIDEAK**

**Dirulaguntzak emateko prozedura lehiaketa izango da.**

**Dirulaguntzen instrukzio organoa osatuko dutenen arteko genero parekidetasuna egongo da. Ordezkaritza orekatua dagoela ulertuko da lau kidetik gorako organoetan sexu bakoitzeko kideek %40ko ordezkaritza dutenean gutxienez. Gainerako kasuetan, berriz, bi sexuek ordezkaritza dutenean dela ulertzen da.**

**Fase honetan Elorrioko Udalak, instrukzio organoaren bitartez, aurkeztu diren proposamenak konparatu eta baloratu beharko ditu, onuraduna nor izango den zehazteko emakume eta gizonen arteko berdintasun irizpidea kontuan hartuz.**

**Eskarien arteko hurrenkera (kreditua nahiko bada, hurrenkerarik ez egitea erabaki ahal izango da) irizpide hauen arabera egingo da eta eskatzaileek irizpide eta baremo hauen araberako puntuazioa lortu beharko dute:**

**Ondasun higiezinen kasuan:**
**- 15 puntu, berritutakoa, babestutako ondasuna bada, babes-maila dena dela; edo zaharberritua babestutako xehetasuna bada.**
**- 20 puntu, Elorrioko Udalaren ondare, turismo edo natura ibilbideren bateko ondasuna bada, edo udal proiektu baterako interesgarria bada.**

Mujeres, y así como la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres, incluida la discriminación por razón de sexo.

- Las asociaciones y organizaciones que discriminen por razón de sexo en su proceso de admisión o en su funcionamiento.

3. PLAZOS

El plazo para presentación de solicitudes será hasta el 30 de octubre.
El plazo contará desde el día siguiente a la publicación del extracto de la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia.

4. PROCEDIMIENTO Y CRITERIOS DE CONCESIÓN

El procedimiento será el de concurrencia competitiva.

Existirá paridad de género en el órgano instructor de las subvenciones. Se considera que existe una representación equilibrada cuando en los órganos de más de cuatro, las personas de cada sexo están representadas al menos al 40 %. En el resto de casos, se entiende que se cumple cuando personas de ambos sexos estén representadas.

En esta fase el Ayuntamiento de Elorrio, a través del órgano instructor, deberá comparar y valorar las propuestas presentadas, teniendo en cuenta el criterio de igualdad de mujeres y hombres para determinar la beneficiaria.

La prelación (que no será necesaria si se dispusiese de crédito suficiente) se hará según los siguientes criterios y las personas solicitantes deberán obtener una puntuación conforme a los siguientes criterios y baremos:

En el caso de bienes inmuebles:
- 15 puntos por ser el intervenido un bien protegido, sea el que sea el nivel de protección, o bien por ser el intervenido un detalle protegido.
- 20 puntos por ser un bien incluido en alguna ruta patrimonial, turística o de naturaleza del Ayuntamiento de Elorrio o ser de interés para algún proyecto municipal.
- 15 puntos por ser un bien visitable y dispuesto a

**- 15 puntu, bisitariei erakusteko ondasun interesgarria bada eta erakutsi nahi bada.**
**- 50 puntu, derrigorrean zaharberritu behar bada.**

**Ondasun higikorren kasuan:**
**— Kulturari dagokionez Euskal Herrian garrantzi historiko-artistikoa duten kultur elementuak: 40 puntu gehienez**
**— Esku-hartzearen oroitidazkia, teknikari aditu batek sinatua, eta jarraian adieraziko direnak jasotzen dituena 40 puntu gehienez:**
**— Kalteen diagnostikoa.**
**— Tratamendua eta esku hartzeko irizpideak.**
**— Aurrez ikusten diren mantentze-lanak.**
**— Esku-hartzeak udalerriaren testuinguru kulturalean duen garrantzia: 10 puntu gehienez. Egiaztatu egin beharko da.**
**— Eskatzaileak proiektua finantzatzeko egingo duen diru-ekarpena, edo jarduerak berak sortuko dituen sarreren bidez, edo beste babesle publiko edota pribatu batzuen ekarpenen bidez: 10 puntu gehienez.**

**Dirulaguntzarik altuenak honakoak izango dira: gastu osoaren %80 higiezinentzako eta %50 higikorrentzako.**

**Herriko ondarea ahalik eta modu eraginkorrenean lagundu eta zaindu ahal izateko eta eragile eta egitasmo desberdinak planifikatu, kontrolatu eta koordinatu ahal izateko, aldez aurretik Udalaren kultura departamentuan aurkeztuak izan diren egitasmoak diruz lagunduko dira.**

abrirse al público.
- 50 puntos por ser una intervención de fuerza mayor.

En el caso de los bienes muebles:
— Elementos culturales con relevancia histórico-artística en términos culturales en Euskal Herria: hasta 40 puntos.
— Memoria de intervención, firmado por un técnico o una técnica competente, y en el que conste, hasta 40 puntos:
— Diagnóstico de daños.
— Tratamiento y criterios de intervención.
— Mantenimiento previsto.
— Relevancia de la intervención en el contexto cultural del municipio: hasta un máximo de 10 puntos. Se deberá de acreditar.
— Aportación económica del solicitante a la financiación del proyecto, bien mediante la generación de ingresos propios de la actividad, bien derivados de la aportación de otros patrocinadores públicos y/o privados: Hasta 10 puntos.

Se otorgará una subvención por un máximo del 80% del coste en caso de bienes inmuebles y de un 50% en caso de bienes muebles.

Con el fin de poder planificar, controlar y coordinar los diferentes promotores y agentes y de poder cuidar e impulsar el patrimonio del pueblo de la manera más eficaz posible, se subvencionarán los proyectos presentados con antelación al departamento de cultura del Ayuntamiento.

**5. ESKARIAK**

**Telematikoki aurkeztuko dira, www.elorrio.eus helbidean dagoen plataformaren bidez eta honako dokumentu hauek bilduko ditu:**

**a. I. eranskina: eskari inprimakia atal guztiak beteta.**

**b. Eskabide-orria sinatzen duen pertsonaren NANa.**

**c. Zaharberritze-proiektua, dagokion erakundearen oniritziarekin.**

5. SOLICITUDES

Se presentarán telemáticamente mediante la plataforma sita en www.elorrio.eus y constarán de la siguiente documentación:

a. Anexo I: Impreso de solicitud debidamente cumplimentado.

b. DNI de la persona firmante de la solicitud.

c. Proyecto de intervención con el visto bueno de las instituciones pertinentes.

d. Factura de la intervención.

**d. Esku-hartzea ordaindu izanaren ordainagiria.**

**Eskaera egitean eskatzaileak oinarri hauek eta deialdia baldintza barik onartzen ditu, eta baimena ematen dio Elorrioko Udalari beharrezko egiaztapenak egiteko.**

La presentación de la instancia conlleva la aceptación sin condiciones del contenido de las presentes bases y convocatoria, así como la autorización de la persona solicitante al Ayuntamiento de Elorrio para realizar las comprobaciones pertinentes.

**6.INSTRUKZIOA ETA ERABAKIA**

**Instrukzioa bi fasetan egingo da: lehenengo azken hiru urteetan onuradun izan ez diren jabeen eskariak eta, kreditua egonez gero, bigarrenean, gainontzeko eskariak instruituko dira, baldin eta azken bi deialdietan finantzatutako ondasuna ez bada.**

**Eskariak aurkezteko epea amaituta, eskariak aztertuko dira eta premiazko eskea egingo zaie interesdunei hamar eguneko epean falta den dokumentazioa aurkez dezaten. Eta jakinaraziko zaie okerrak zuzendu ezean eskaera atzera egindakotzat joko dela.**
**Epe horren ostean, udal teknikariek eskariak aztertuko dituzte informazio batzordeak Tokiko Gobernu Batzarrari bere irizpena helarazteko.**

**Hartutako erabakiak administrazio bideari amaiera emango dio, eta erabakiaren kontra Udaleko alkatearen aurrean berraztertzeko errekurtsoa tartekatzeko aukera egongo da, edo baita zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa tartekatzeko Bilboko dagokion auzitegian. Hori guztia, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluak eta hurrengoek, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legearen arabera.**

6. INSTRUCCIÓN Y RESOLUCIÓN

La instrucción se realizará en dos fases: primero, las solicitudes de las propietarias que no hayan resultado beneficiarias en los últimos tres años y, en caso de existir crédito, en segundo lugar, las del resto, siempre y cuando no sea el intervenido un bien ya financiado en las últimas dos convocatorias.

Una vez terminado el plazo para presentar solicitudes, se comprobará la documentación presentada y se instará a las solicitantes para que en el plazo de diez días subsanen las carencias detectadas, indicándoles que, en caso contrario, se les tendrá por desistidas en su solicitud.
Tras ese plazo, el personal técnico municipal evaluará las solicitudes para que la comisión informativa proponga a la Junta de Gobierno Local su dictamen.

La resolución que se dicte pondrá fin a la vía administrativa, y contra la misma cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante la Alcaldesa de este Ayuntamiento, o bien directamente recurso contencioso administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Bilbao que por turno corresponda. Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 40 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre y Ley 29/1998 de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

**7. BATERAGARRITASUNA**

**Dirulaguntza hauek, helburu bera duten beste administrazio edo ente publiko edo pribatu, nazionala edo Europakoak, edo nazioarteko beste erakunde batzuetako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin bateragarriak dira, ez bada dirulaguntzen berezitasunetariko bat, bateragarria ez izatea. Edozein modutan, dirulaguntza inoiz ez da izango diruz laguntzen den proiektuaren gastua**

7. COMPATIBILIDADES

Estas subvenciones son compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales o de la Unión Europea o de organismos internacionales, salvo que de las características de la subvención de deduzca lo contrario y siempre con el límite del coste del hecho subvencionado.

**baino handiagoa.**

**8. PUBLIZITATEA**

**Onuradunei publizitatea eskatuko zaie argitalpenen bat baimentzen dutenean zaharberritutako ondasun horren gainekoa, uztailaren 21eko 887/2006 EDak, azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorra garatzen duen Ordenantzak, aurreikusten duenari jarraituz. Elorrioko udalak bere egiten du esku-hartzearen babesle izatearen publizitatzeko eskubidea, edozein dela modua ere.**
**Horrez gain, Udalak eskumena hartzen du ondasun higikorra behin behineko erakusketa batean ipintzeko, inoiz ez bi hilabete baino luzeagotan.**

8. PUBLICIDAD

Se exigirá publicidad a las personas o entidades beneficiarias cuando autoricen alguna publicación referente al bien restaurado, conforme al RD 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones. El Ayuntamiento de Elorrio hace suyo el derecho a publicitar su calidad de ente colaborador en la intervención del modo que estime oportuno.

Además, puede exigir la cesión de los bienes muebles restaurados para exposiciones puntuales nunca superiores a dos meses.

**9. ORDAINKETAK**

**Erabakia ematean, onuradunei %100 ingresatuko zaie.**

9. PAGOS

Tras la resolución, el Ayuntamiento ingresará a las beneficiarias el 100% de la cantidad otorgada.

**10. ONURADUNEN BETEBEHARRAK**

**- Dirulaguntzak oinarri duen helburua lortzea, proiektua burutzea, jarduera egitea edo portaera hartzea.**

**- Baldintzak bete direla egiaztatzea, eta dirulaguntzak oinarri duen jarduera bete dela eta helburua lortu dela ziurtatzea.**

**- Kontroleko organo eskudunek egin ditzaketen egiaztatze eta kontrol finantzarioei men egitea, horretarako beharrezko informazio guztia aurkeztuz.**

**- Diruz lagunduriko jarduerentzat bestelako dirulaguntzak, sarrerak edo baliabideak lortu direla jakinaraztea. Jakinarazpen hori jakin bezain laster egin beharko da, eta izatekotan, jasotako funtsei emandako aplikazioa egiaztatu aurretik.**

**- Kasu bakoitzean onuradunari aplikatu dakiokeen merkataritzarako eta sektoreetarako legeek exijitutako baldintzen arabera, behar bezala, ikuskatutako kontabilitate-liburuak, bideratutako erregistroak eta gainerako agiriak edukitzea, eta dirulaguntzen oinarri erregulatzaileek eskatutako kontabilitate**

10. OBLIGACIONES DE LAS BENEFICIARIAS

- Cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de las subvenciones.

- Justificar el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención.

- Someterse a las actuaciones de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control competente, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.

- Comunicar la obtención de otras subvenciones, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas. Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.

- Disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentos debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable a la persona beneficiaria en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos por las bases reguladoras de las subvenciones, con la

**egoerak eta erregistro zehatzak izatea, egiaztatze eta kontroleko ahalmenak modu egokian garatuko direla bermatzeko.**

**- Jasotako funtsak aplikatu direla egiaztatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztatze eta kontroleko jarduerak aurrera eraman ahal izateko.**

**- Dirulaguntzen deialdian ezarritako hedatze-neurriak hartzea, dirulaguntzak helburu duen proiektua, jarduera edo portaera Elorrioko Udalaren kolaborazioarekin edota finantzazioarekin burutu dela jakinarazteko.**

**- Jasotako funtsak itzultzea Arau Erregulatzaileen 42. artikuluan ezarritakoari jarraiki.**

finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.

- Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control.

- Adoptar las medidas de difusión establecidos en la convocatoria de las subvenciones, a fin de informar que el proyecto, la actividad o el comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención se lleva a cabo con la colaboración y/o la financiación del Ayuntamiento de Elorrio.

- Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos contemplados en el artículo 42 de las Bases Reguladoras.

**11. DIRULAGUNTZEN ITZULTZEA**

**Itzulketa, Dirulaguntzen Udal Ordenantza Orokorrak, Dirulaguntzen Lege Orokorrak eta aplikagarria den gainerako araudiak xedatzen duten moduan egingo da.**
**Berdin egingo da gainfinantzaketa dagoela egiaztatzen bada dirulaguntza justifikatzeko aurkeztutako agirietan edo ofizioz.**

11. REINTEGRO DE SUBVENCIONES

A estos efectos, se estará a lo dispuesto en la Ordenanza municipal General de Subvenciones, Ley General de Subvenciones y demás normativa aplicable.
Se procederá de igual manera en caso de que, a resultas de la documentación justificativa o por actuaciones de oficio, se concluya la existencia de sobrefinanciación.

**12. ZURIKETA**

**Eskariarekin batera eskatzen dira memoria eta ordainagiriak, eskuhartzeak amaitu ostean egiten direlako eskariok. Horregatik ez dagokio osteko bestelako zuriketarik.**

**Kitapena aurkeztu beharko da prozedura hau amaitu ostean diru-sarrera berriak jasotzekotan.**

12. LIQUIDACIÓN

No procede liquidación, puesto que la solicitud se realizará a fin de año y con la intervención terminada, presentando facturas y memorias finales.

Procederá liquidación posterior en caso de recibir posteriormente otros ingresos destinados al mismo fin.

**13. DATU-BABESA**

**Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamendu Orokorraren eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren (DBLO) arabera, eskatzaileari jakinarazten diogu emandako datu pertsonalak honela tratatuko ditugula:**

**- <u>Arduraduna</u>: Elorrioko Udala - dpo@elorrio.eus Datuen babeserako ordezkaria: Grupo Unive Servicios Jurídicos S.L. dpo@elorrio.eus**
**- <u>Helburua</u>: 2024an Elorrioko Udalak norbere**

13. PROTECCIÓN DE DATOS

Conforme al Reglamento 2016/679 General de Protección de Datos y LO 3/2018, de 5 de diciembre (LOPDGDD), informamos a la solicitante que trataremos los datos personales facilitados en los términos siguientes:

- <u>Responsable</u>: Ayuntamiento de Elorrio - dpo@elorrio.eus / Delegada protección de datos: Grupo Unive Servicios Jurídicos S.L. dpo@elorrio.eus
- <u>Finalidad</u>: Gestionar subvenciones del

**ondarea zaharberritzeko ematen dituen dirulaguntzak kudeatzea.**
**- Legitimazioa: Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren ondoriozko legezko betebeharra**
**- Kontserbazioa: Datuak aipatutako helburua betetzeko behar-beharrezkoa den denboran gordeko dira, betiere artxibatzeko araudi aplikagarriak ezartzen duena errespetatuz.**
**- Hartzaileak: Arduradunak datuak jakinarazi ahal izango dizkie gaian eskumena duten agintariei.**
**- Eskubideak: Pertsona eta elkarte eskatzaileek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, mugatzeko, ezabatzeko, aurka egiteko edo eramateko eskubideak erabil ditzakete, idatziz, Elorrioko Udaleko erregistrora edo Datuak Babesteko ordezkariaren helbide elektronikora (dpo@elorrio.eus). NANaren edo sinadura elektroniko aitortuaren kopia erantsi beharko da.**
**Era berean, jakinarazten dizugu erreklamazio bat aurkez dezakezula Datuak Babesteko Euskal Bulegoan.**

Ayuntamiento de Elorrio para rehabilitación del patrimonio en 2024.
- Legitimación: Obligación legal derivada de la Ley 38/2003 General de Subvenciones.
- Conservación: Los datos se conservarán durante el tiempo estrictamente necesario para cumplir con la finalidad mencionada, respetando en todo caso el que determine la normativa de archivo aplicable.
- Destinatarias: La responsable podrá comunicar los datos a las autoridades competentes en la materia.
- Derechos: Las personas y asociaciones solicitantes pueden ejercer los derechos de acceso, rectificación, limitación, supresión, oposición o portabilidad, dirigiéndose por escrito al registro del Ayuntamiento de Elorrio o a la dirección electrónica de la Delegada de Protección de datos (dpo@elorrio.eus).Se deberá adjuntar copia de DNI o firma electrónica reconocida.
Asimismo, le informamos de que puede presentar una reclamación ante la Agencia Vasca de Protección de Datos.

## 14. KLAUSULA GEHIGARRIA

**Oinarri espezifiko hauetan jasotzen ez diren gai guztietan Oinarri Erregulatzaileetan ezarritakoa izango da aplikagarria.**
**Halaber, 38/2003 Dirulaguntzen Lege orokorrean eta bat datozen gainontzeko lege arauetan ezarritakoari atxikiko zaio.**

## 14. CLÁUSULA ADICIONAL

En todo lo no recogido expresamente en las presentes bases específicas, se estará a lo dispuesto en las Bases Reguladoras de Subvenciones del Ayuntamiento de Elorrio.
Asimismo, regirá la Ley 38/2003 de Subvenciones y demás disposiciones legales concordantes.

Elorrioko udala

ESP. 2024-00008

**Kultura**
Cultura

**I. <u>ERANSKINA: ESKARI-ORRIA</u> ELORRIOKO UDALAREN 2024 URTERAKO ELORRIOKO HIGIKOR ETA HIGIEZINEN KULTUR ONDAREA BERRITZEKO ERAIKUNTZETAN ESKU-HARTZEAK EGITEKO DIRULAGUNTZARAKO**

<u>ANEXO I: IMPRESO DE SOLICITUD PARA SUBVENCIÓN DEL AYUNTAMIENTO DE ELORRIO PARA ACOMETER INTERVENCIONES CONSTRUCTIVAS DE REHABILITACIÓN DEL PATRIMONIO CULTURAL MUEBLE E INMUEBLE DE ELORRIO EN 2024</u>

**1.- ESKATZAILEAREN DATUAK** / DATOS DE LA SOLICITANTE

- **Izen-abizenak** / Nombre y apellidos: ______________________________________

- **NANa** / DNI:________________________ - **Telefonoa**: ____________________

- **E-posta** / e-mail: ___________________________________________________

**Honako honen ordezkapenean** / En representación de:

- **Entitatearen izena** / Nombre de la entidad: _________________________________

- **IFK** / NIF:_________________________ -**Telefonoa**: _____________________

- **E-posta** / e-mail: ___________________________________________________

| **IBAN** | | | | **ERAKUNDEA** | | | | **AGENTZIA** | | | | **K.C.** | | **K/KORRONTEA** | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| E | S | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |

**2.- DIRULAGUNTZA-ESKARIRA AURKEZTEN DEN ESKUHARTZEAREN DESKRIPZIOA ETA DIRU-SARRERAK ETA GASTUAK** / DESCRIPCIÓN E INGRESOS Y GASTOS DE LA INTERVENCIÓN SUBVENCIONABLE**:**

| **Eskuhartzearen izena eta deskripzioa** / Nombre y descripción de la intervención | **Sarrerak** / Ingresos | **Gastua (BEZa barne)** / Gasto (IVA incluido) |
|---|---|---|
| | ..................... € | ..................... € |
| | ..................... € | ..................... € |
| **GUZTIRA** / TOTAL | (A) ..................... € | (B) ..................... € |

| | |
|---|---|
| **Defizita (B-A)** / Déficit (B-A) | ………………… € |
| **Espero diren beste dirulaguntza batzuk, publiko zein pribatuak** / Previsión de otras subvenciones públicas o privadas | ………………… € |
| **Elorrioko Udalari eskatzen zaion dirulaguntza** / Subvención solicitada | ………………… € |

**3.- INTERESEKO BESTE DATU BATZUK** / OTROS DATOS DE INTERÉS.

Idatzi hemen, mesedez, zure eskaria baloratzen (oinarrietako 4. Puntuko baremazioaren arabera) lagunduko duen informazioa. / Por favor, aporte aquí información relevante para valorar su solicitud.

| |
|---|
| |

**4.- AITORPEN ERANTZULEA** / DECLARACIÓN RESPONSABLE

**Eskari honekin batera adierazten dut (markatu beharrezkoa):** / Referente a esta solicitud, DECLARO (marque lo que corresponda):

☐ **Bertan adierazitako informazio guztia egiazkoa da.** / Toda la información que consta es verdadera.

☐ **Ez nago dirulaguntzak jasotzeko ezintasun egoeran, oinarri espezifikoen 2. artikuluan xedatutakoaren arabera.** / No me encuentro en ninguna de las circunstancias impeditivas según lo detallado en el punto 2 de las bases.

**Bestelako dirulaguntzak direla-eta, honakoa aitortzen dut (bata edo bestea markatu beharko duzu):** / En lo referente a otras subvenciones, declaro (deberá marcar una u otra):

> ☐ **Xede berbera finantzatzeko beste dirulaguntzarik eskatu edo eskatzeko asmorik ez dut** / No he solicitado ni preveo solicitar otra subvención para financiar el mismo objeto.
>
> ☐ **Xede berbera finantzatzeko hurrengo dirulaguntzak eskatu(ko) edo jaso ditut:** / Tengo previsto solicitar o he recibido las siguientes subvenciones para financiar el mismo objeto.
>
> **Nork emana? /** Financiado por ________________________ **Kopurua:** / Cantidad: ___________________

☐ **Zergetako eta Gizarte-Segurantzarekiko betebeharretan egunean nago.** / Me hallo al corriente de mis obligaciones fiscales y con la Seguridad Social.

☐ **Ez dut administrazio-bidean, lan-bidean edo zigor-bidean berdintasun-eskubidea urratzeagatik eta sexuan oinarritutako bereizkeriari egiteagatik zehazpen irmoa.** / No tengo sanción firme por vulnerar el derecho a la igualdad en vía administrativa, laboral o penal y por incurrir en discriminación por razón de sexo.

Elorrioko udala

ESP. 2024-00008

Kultura
Cultura

□ **Betetzen ditut Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bateginak ezarritako betebehar guztiak.** / Cumplo con las obligaciones establecidas en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las mujeres.

**Elorrion, 2024ko ______________________-aren ______**

En Elorrio a ________ de ____________________ de 2024

**Sinadura** / Firma: